



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

INFORMACIÓN DE LA CADENA ALIMENTARIA

ELIKAKATEAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Sarrera

Kontsumitzaileen elikagai-segurtasun maila bermatzeko, xedapen ugari landu izan dira Europa mailan azken urteotan. Xedapen horietako asko abeltzaintza arloko ekoizpenari buruzkoak izan dira; izan ere, kontsumitzen ditugun elikagai gehien jatorria horixe da. “Abeletxetik mahaira” zeharkako kontzeptuak erreferentzia egiten dio eragile guztiek (ustiatégian elikagai baten jatorritik hasi eta kontsumitzaileengana iritsi bitartean parte hartzen duten eragileek) modu eraginkorrean jakinarazi beharreko informazioari.

Artikulu honetan adierazten nahi dugu zein informazio jakinarazi behar duten eragileek animaliak hiltzera eramatean.

Erreferentzia-legediak

Martxoaren 28an 361/2009 Errege Dekretua argitaratu zen BOEn. Dekretu horren bidez arautzen da ze nolako informazioa erantsi behar den animaliarekin batera, elikakatearen gaineko informazioa hain zuzen, hil beharreko animaliak hiltzera eramatean. Eta hurrengo hau hartzen da elikakateari buruzko informaziotzat: abeltzainek ustiatégietan izan beharreko erregistro idatziak. Erregistro horiek hiltzeari esku jarriko dituzte nekazariak animaliak hiltzera eramaten dituztenean.

Errege Dekretu horrek bildu egiten ditu Europako zenbait arauditan sakabanaturik egon diren baldintza guztiak (higiene-paketea izenekoak). Araudi horiek guztiek erreferentzia egiten diote gai berari: elikakateari. Izan ere, horri buruzko informazioa testu bakarrean bilduz gero, hobetu ulertuko da eta ezarpena sistematizatu egingo da.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Testuak adierazten du zein diren gai honetan abeltzainek, erakunde eskudunek, albitari ofizialek eta hiltegieta eragileek dituzten ardurak.

Dekretua ez da aplikagarria basoko ehizako animalientzat; ehizarako untxientzat eta hazteko animalientzat, berriz, 2009ko abenduaren 30ean jarriko da indarrean.

Errege Dekretu horrek indargabetu egiten du *abenduaren 22ko 3454/2000 Errege Dekretuaren XI eranskina, Animalien Entzefalopatia Espongiforme Transmigarriak zaintzeko eta kontrolatzeko Programa Integrala ezarri eta erregulatzen duena* (PRE/2893/2007 Aginduak aldarazia), Hiltzeko diren behi-, ardi- eta ahuntz-espezieetako animaliei buruzko datuak izenekoak.

Hil beharreko animaliekin batera erantsi behar dugun informazioa, animaliak hiltzeran eramaten ditugunean.

Lege-testuak adierazten du hiltegiara eraman beharreko informazioa ustiategieta erregistroetan oinarritzen dela. Ez dira eraman behar abeltzainak derrigorrean izan behar dituen agiri guztiak; baina, eramaten direnak ustiategieta erregistroetan oinarrituko dira. Horretarako, ustiategieta honako erregistro hauek izan behar dira: sendagaiak edo beste tratamendu batzuk; elikagaien segurtasunean eragina izan dezaketen ustiategiko gaixotasunak; zoonosien analisisen emaitzak; lagin ofizialen (hondakinen zaintza eta kontrol programei buruzkoak) analisisen emaitzak, eta hiltegiak igorritako ikuskapen-emaitzak.

Hau da, ordea, hiltegiara eraman beharreko informazioa:



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

- Administrazio datuak: ustiategiaren izena; azken 30 egunetan (hegaztiak badira, azken 21 egunetan) animaliek ustiategian eman duten denbora, eta leku-aldatze agiria.
- Igorpenari buruzko datuak: animalien kopurua, arraza, identifikazioa...
- Igorritako animaliei buruzko informazioa: aurreko 48 orduetan albaitariren batek aztertu dituen ala ez; animalietan irregulartasunen bat antzematen bada, zehaztu egin behar da izan dituen sintomak; azken 30 egunetan animaliei albaitaritza tratamendurik ezarri zaien eta tratamendu horiei buruzko informazioa.
- Jatorriko ustiategiari buruzko informazioa: ustiategiaren osasun-kalifikazioa; ustiategiko gainerako animalien, hau da, hiltegiara eramaten ez diren animalien aldaketa garrantzitsuenak; aurreko 12 hilabeteetan ustiategietan egin diren albaitaritza-diagnostikoak; azken 6 hilabeteetako zaintza eta kontrol programetako laginen emaitzak; hondakinak aztertzeko azken 6

hilabeteetan hartutako laginak; hiltegiak azken bi urteetan egindako txostenak, halakorik egin bada; normalean ustiategiaz arduratzen den albaitari pribatuaren izena eta helbidea; ustiategiak zaintzarako eta kontrolerako zein programatan hartzen duen parte. Datu horietako batzuk ez dira igorri behar animaliak igortzen diren bakoitzean, betiere hiltegiak informazio hori badu.

Aldaketak

Lehen aipatutako Errege Dekretuak xedatzen du 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera informazioa hiltegiara igorri behar dela animaliak bertara iritsi baino 24 ordu lehenago, salbuespenak salbuespen. Baina, argitaratu berri den 2009ko azaroaren 3ko 1161/2009 (CE) Araudiaren arabera, ez da derrigorrezkoa informazioa hiltegiara 24 ordu lehenago igortzea; beraz,



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

animaliekin batera eraman ahal izango da, erakunde eskudunak baimentzen badu. Araudi horrek Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 853/2004 (CE)

Araudiaren II. eranskina aldarazten du.